


ELANTXOBE IZENAGAZ “ELANTXOBE” BAPOREA



Elantxobe baporea 1902ko urtean eraikia izan zan Ingalaterrako untxiola baten. 4.525 tona ebazan eta neurriak 107x5,5x8,6 metrokoak ziran. Juan de Olabarra jauna erosi eban 1921ean eta Mercedes izenagaz bataiatu eban. Gerora Zugadi y Ciak erosi eban 1925ean eta izena aldatuz Virgen de Begoña imini eutsen. Barrero be 1926an Jesus Azcarreta jauna erosi eta Euzkera jarri eutsen izenez. Azkaner 1934ean Pedro Perez de Gante Konpainiak erosi behin betirako izendatu eban Elanchove. Karga orokorrerako erabilia izan zan eta urte berean hondoratu zan erdibituta burdin mea eroala Cardiffeko portura. Ekaitz baten ondorioz erdibitu zan Bilbotik urtenda 150 bat miliara.

“ELANTXOBE” BULK CARRIERRA



Sestaoko La Naval ontzian egin eta 1970ean uretaratu zan. 49.000 tona, 204,52 metroko luzera, 29,85 metroko zabalera eta 17 metroko puntala eukan. 13.800 ZPko motorrak 16,5 korapiloko abiadura emoten eutsen. Flora Zubiria Ybarra anderea izan zan amabitxia eta euki eban lehenengo kapitaina, handik urte batzuetara Bizkaiko Foru Akldundiko lehendakaria izandako Anton Aurre Elorrieta izan zan. Egin eban lehenengo bidaian, Sandefjord-era (Noruega) grua bat imini jakon eta bere kalatua handitu eban honek. 1970eko irailean hasi zan beharrean Sandefjord-etik Puerto Salazarrera (Angola) eta burdin-minerala garraiatzeko erabili izan zan batez be. Angola, Brasil, EEBB eta Liberiara egin ebazan bidaiak, Gijoiko Musel portuan deskargatzen ebala handik ekarritakoa. 1978ko zezeilaren 17an, Cabo Verde parean,



karga barik joiala, su hartu eban eta kalte handiak euki ebazan estrukturan eta kamaroteetan. Aseguro etxeak (Seguros Bilbao) galdutzat emon eban itsasontzia eta, konpontzea garestia izango zala-eta, Naviera Galeari saldu eutsen merke-merke. Santanderreko ontzian konpondu eta “Aiboa” izenagaz jarraitu eban bere ibilbidea. Gerotxuago Txinan saldu zan, han beste izen batzuk izan ebazan: Optimist, Timi, Kaldera eta Kal. 1995ean egin eban azkanengo bidaia Alang-era (India), eta bertan desegin edo desguazatu eban.

“ELANTXOBE” ITSAS-KONPAINIA

“Elantxobe Itsas-Konpainia”k bere bulegoak Bilbon euki ebazan Alameda de Mazarredo kalean, 17 garrenean, gaur egun Zortziko jatetxea kokatuta dagoen lekuan. Konpainia hau elantxobetar giza talde batek sortu eban; eurentariko batzuk Marcelino Beitia Malaxetxebarria, Gorgonio Renteria eta Rosalio Malaxetxebarria izan ziran. Konpainia sortzeko kapitala gizon honek Filipinetan egindako lanetatik etorren, eta kolonia desagertutakoan hango aurrezkiei urtenbide on bat emoteko asmoaz sortu eban.

Zoritxarrez ekonomikoki ez eban arrakastarik lortu. Inbertsio okerrak, istripuak eta hondoraketak, eta guda zibila gehituz, pikutara bidali eban negozioa, zinetan ba horrenbeste esperantza jarrita egoan.

Romeu baporeak Echano aboratu ebanean (astelehenez, 1933ko irailaren 11n)

Konpainiaren ezbeharrik haundiena Romeu baporeak Echano aboratu eban izan zan, tripulazioko hamahiru lagun erortu eraginez.

On Manuel Rodriguez Aralar historiolarri nabalak, honela deskribituko dauku gertatutakoa: *“Beste sarri askotan legez, Portugaleko uretan eta laino sarratu baten ondorioz espainiar Banderako merkatal untxi biak alkar jo eban. Romeu itsasontzia Transmediterranea Konpainia famatukoa zan eta Echano Elantxobe Konpainiakoa. Hamahiru gizonen galera eragin eban istripu larri honek Echanoko tripulazioaren*



Romeu baporea 1945ean, Bilboko Abando moilan

artean; itsasontzia bera be oso minutu gutxitan hondoratu eta desagertu zan Ozeano Atlantiko ilunean”.

Romeu baporeak pasaiariak eta karga orokorra eroan ohi zituan. Kartagenan eraikia zan Construcion Naval zeritzon untxiolan 1918garren urtean.

Untziaren ezaugarriak honek ziran: 3070 TRB, 1965 TRN, 94,49 metroko luzera, 13,23 metroko zabalera eta 7,92 metroko puntala. Propulsiorako expansio hirukoitzeko baporezko maquina batez hornitua zegoan, zeinek ze 288 NHP boterea emoten eutsan. Galdara bik sortzen eban makina mobitzeko lurruna eta hasikeran ikatza erabiltzen eban arren urte mordo bat beranduago, 1933an hain zuzen, fuel erregea likidoa erretzeko prestatu ziran. Ehun eta hogeia bidaiarientzako gelak zituan hiru klasetan bananduta, eta lau soto karga orokorrerako. Bidaia honetan Romeu irailaren 9ko zapatu iluntzean urten zan Vigo portutik, barruan 35 pasaiarigaz eta 49 tripulazioko kideak. Bere helmuga Kadizeko portua zan kapitaina Juan Arriatiaga zala.

Abordairen beste baporea eta gainera kaltetuena Echano izan zan, zein Scomer and Jensen alemaniar untxiolan eraikia izan zan, Tonningeko hirian, Elise Podens izenagaz. Gerora bere izena sarri aldatu eban: Herbert Fischer, Luisa, Mogador eta Mari Luci konpainia desbardinatzen. Elantxobe Konpainiak 1930 garren urtearen amaieran erosi eutsen Lucia Echevarrieta Iburgurengoitia konpainiari, bilbotarra hau bere; orduan jarri eutsen Echano izena. Itsaontziaren ezaugarri nagusienak honek dira: karga orokorrekoa eta kaskoa altzairuzkoa, 964 TRB, 562 TRN, 1430 TPM 64,43 metroko luzera, 9,81 metroko zabalera, eta 4,02 metroko puntala. Propulsiorako lurrunezko makina alternatiboa hiru expansiokoa 89 NHP emoten ebana. Galdara bakarra eukan eta berak ikatza erretzen eban. Hiru soto eukazan kargarako. Bere azkanengo bidaia honetan gatza kargatu eban Murziako San Pedro del Pinaterreko portuan, 1933ko irailaren 5ean, bere helmuga Vigo izanik. Kapitaina Lekeitioko semea zan, Fernando de Abaroa, eta tripulazioa 18 lagunez osatua egoan.

Astelehen goiza zan ha, 1933ko irailaren 11koa, eta bapora biak laino zakar baten barruan nabegatzen ari ziran. Kapitain biak behar-beharrezko ziran neurri guzti-guztiak hartu ebezen kasu hauetan itsasoko jentek ohi egin dauen legez. Halabeharrik eraginda itsasontzi biak kontrako norabidean ari ziran nabegatzen, bat Vigotik urtenda eta bestea Vigorantz; nahiz eta sirena soinuak eta kanpai hotsak entzun alkar ikusi ahal izan ebanean beranduegi zan eta topo egin eban goizaldeko ordu bietan Portugaleko Leixoes hiritik 35 miliara. Nahiz eta egoerak eskatuta bapora biak abiadura motelean joan aboratu oso bortitza izan zan, biak geldiarazteko bestekoa. Romeu baporeak brankaz kolpatu eban Echanoren estriborreko amuradea zulo haundi bat eraginez eta, berehala ur kantitate izugarria sartzen hasi zan. Denak harrapatu zituen ezustean eta guardian egozanak izan ezik beste guztiak ohean egozan kamaroteetan. Ura berehala sartu zan makinatoko gelara eta galdarak erremontazea eragin eban oraindik kalte haundiagoak sortuz eta hondoratzea erretzuz. Gehienak ezin izan eban kubiertara bere ailagatu; hau lortu eban gitxi batzuk izan ziran eta euren burua uretara botatzea baino ez jaken gelditu ahalbait arinen hiltzorian egoan zoritxarreko itsasontzitik urrundutea lortu ahal izateko.

Romeuko irratiko ofizialak berehala bidali eban sokorru deia, eta tripulazio eta baita bere pasaiariak kubiertetan kokatu ziran zer pasako be dan-danak estu eta bildurturik ezustean harrapatu ebazan aboratuak eta. Romeukoak Echanokoen egoera larria ikusita berehala hasi ziran salbamentuzko batelak uretaratzen eta holan lortu eban sei gizon erreskatatzea biloizik eta guztiz ikaratuta. Bizia salbatzea lortu eban honek izan ziran: Fernando de Abaroa, kapitaina, Juan de Ormaetxe despentsari edo maiordomoa, Jesus Sendon Seoane kontramaisua, Enrique Mayan Dominguez marinela, Jacinto Sendon Seoane galdatzaile edo fogoneroa eta Serafin Fernandez, hau bere fogoneroa. Salbatu zan baita bere barruko txakurra Lulu izenekoa.

Romeu baporearen sorosle eskeko deiarrei erantzunda urtean egozan beste hiru itsasontzi urreratu ziran: Llandoverly Castle britainiarra, Unio Castle Linekoa, Cabo Sakratif hau Naviera Ybarrakoa eta ganera Fulda alemaniarra OPDR itsas konpainiarena. Zelan kolpearen eraginez Romeuren brankan sortutako triskantza haundia zanez kapitainak urtean egoan Leixoes porturako norabidea hartzea erabaki eban Llandoverly Castle britainiarrak lagunduten ebala eskolta modura. Hamar ordu behar izan zituen portura iristeko Praia Sardinaren aurrean Alfredo Pereira Franco praktikoa enbarka eta norabidetu eban porturantz. Leixoesko Itsas Kapitainaren aurrean itsasontzi bietako Kapitainak euren deklarazioak eta “Protesta de Mar” gauzatu ebezen. Istripuaren gorabeherataz interesaturik egozan kazetarien aurrean Echanoko kapitainak zere esan eban labor-labor: *“Ruego a ustedes me consideren a mí también como muerto. Los muertos no hablan”*

Echanoko aboratuaren ostean desagertutako tripulazioko kideen izenak honek dira: lehenengo ofiziala Antonio de Arriandiaga Zobarau; bigarren ofiziala Jose Maria de Arriandiaga Ibieta; lehelengo makinista Antonio Mambille Diaz; bigarren makinista Manuel Ugarte Gonzalez; hirugarren makinista Martin de Echevarria Arospide; kaldereteroa Benito Perez Rey; fogoneroak Jose Anido Luge eta Lorenzo Ordeñana Urberua; sukaldaria Juan de Ozami Ormaechea; kamareroa Roberto de Okamika Pinagoa; marinela Roberto Lorenzo Garcia, Juan Perez Rey y Manuel Calvino Nures.